

# Hegazti-gripea dagoen eremuetako arrautzak etiketatzeko irizpide berriak 17/11/27

Orain arte, 2008. urteaz geroztik, arrautzen ekoizleek produktuak landako produktu edo produktu ekologiko gisa merkaturatzen jarraitu ahal zuten, baita oiloak gehienez ere 12 astean aire zabalera ateratzen ez baziren ere. Arrautzak etiketatzeko irizpidearen azken aldaketarekin, 2017ko azaroaren 25etik aurrera, 16 astera luzatuko da epe hori.

Horrela, Europako Batzordeak zuzenean erantzungo die EBko abeltzainek "aire zabalerako" abeletxeek izan ditzaketen diru-galeren inguruan dituzten zalantzei. Hegazti-gripea izateko arrisku handia dagoen kasuetarako, EBko albaitaritzarauek exijitzen dute oiloak instalazioen barruan eduki daitezela, hegazti migratzaileen eraginez kutsatzeko arriskua murrizteko.

Merkaturatzeari buruzko arauak lehendik ere aukera ematen zuten arrautzak parkerako sarbidea duten oiloen arrautza gisa etiketatzeko, baita hegaztiak gehienez ere 12 astean barruan edukitzen baziren ere. Alabaina, gaur egun uste da epe laburregia dela hori, EBn 2016an izan zen gripegerraldia kontuan harturik, gripea sortu zen eremuetan oso luze jo baitzuten agerraldiek.

Arau berriek, gainera, adierazten dute hegazti-loteetan aplikatuko dela aldaketa (eskualdeetan edo abeltzaintza-ustiategiaren aplikatu beharrean). Horri esker, mugatze-aldian animalia-lote berriak sartu dituzten abeletxeek osorik baliatu ahal izango dute eskubide hori: abeletxe bereko banakako saldo bakoitzeko arrautzak libre gisa etiketa ditzakete 16 asteko epe osoan, aire zabalerako sarbidea mugatzen bada, abeletxeak mugak noiz bete behar dituen kontuan hartu gabe.

Gaur egun, EBn 390 milioi oilo inguru daude, eta horietatik 54 (% 14) aire zabalean hazitakoak dira. Landako oiloen arrautzak bereziki garrantzitsuak dira Erresuma Batuan (oiloen % 53 herrialde horretan hazten dira), Irlandan (% 40), Austrian (% 21), Frantzia (% 18), Alemanian (% 18) eta Herbehereetan (% 15). Hazkuntza-sistema "alternatibo" horien garrantziari dagokionez, Erresuma Batuak dauka EBko landako oilo gehien (% 41), eta ondoren Alemaniak (% 17), Frantziak (% 16) eta Herbehereek (% 10).

2016/17an hegazti-gripearen ondorioz ezarritako mugek inpaktu larria izan zuten Alemanian, Herbehereetan, Erresuma Batuan, Belgikan, Frantzia eta Irlandan.

[Europako Batzordearen prentsa-oharra](#)

---

# Elikagaiak ekoizteko animalietan antimikrobianoak erabiltzeari buruzko gida 17/11/10

OMEk [jarraibide batzuk](#) atera berri ditu elikagaiak ekoizteko animalietan medikuntzarako garrantzitsuak diren antimikrobianoak nola erabili azaltzeko. Hain zuzen ere, gomendatu dute abeltzainek eta elikagaien industriak utzi egin behar diotela antibiotikoak eguneroko jardunean erabiltzeari, eta animalia osasuntsuen hazkuntza sustatu eta gaixotasunak prebenitu behar dituztela. Jarraibide horiekin, giza medikuntzarako garrantzitsuak diren antibiotikoen eraginkortasunari eutsi nahi diote, animalietan gutxiago erabilia.

OMEk adierazi duenez, herrialde batzuetan, garrantzi medikoa duten antibiotikoen kontsumo osoaren % 80 inguru animalien sektorean egiten da, animalia osasuntsuak bizkorrago hazteko helburuarekin, batik bat.

[The Lancet Planetary Health aldizkarian argitaraturiko berrikuspen sistematiko](#) batean ondorioztatzen denez, elikagaiak ekoizteko animalietan antibiotiko gutxiago erabiltzeko interbentzioek % 39raino murrizten dituzte antibiotikoekiko erresistenteak diren bakterioak animalia horietan. Ikerketa hori OMEren jarraibide berriak egiteko oinarri gisa hartu zen zuzenean.

OMEk dioenez, animalia osasuntsuei antibiotikoak eman beharko litzaizkieke gaixotasunak prebenitzeko, baldin eta gaixotasun hori azienda bereko beste animalia batzuetan edo arrain-populazio berean diagnostikatu bada aurretik.

Ahal dela, beti probak egin behar zaizkie animalia gaixoei, infekzio espezifiko hori zentzuz tratatzeko antibiotikorik eraginkorra zein den erabakitzeko. Animalietan erabiliko diren antibiotikoak hautatzeko orduan, OMEren arabera, giza osasunerako «garrantzi gutxiena» dutenak aukeratu behar dira, eta ez «garrantzi kritikoa eta lehentasun gorena» dutenak. Antibiotiko horiek bestelako tratamendurik ez dagoenean ematen dira, edo gizakietako bakterio-infekzio larriak tratatzeko dauden tratamendu mugatu batzuen parte izan ohi dira.

[Elikagaiak ekoizteko animalietan garrantzi medikoko antibiotikoak erabiltzeari buruzko OMEren jarraibideak](#)

Bestalde, OMEk giza [medikuntzarako garrantzi kritikoa duten antimikrobianoen zerrenda](#) bat argitaratu zuen 2005ean, eta aldian-aldian gaurkotzen da, farmakoak zentzuz erabil daitezela

sustatzeko. Zerrendan, hiru kategoriatan sailkatzen dira gaur egun gizaki eta animalietan erabiltzen diren antibiotikoak –«garrantzitsuak», «oso garrantzitsuak» eta «garrantzi kritikokoak»–, giza medikuntzarako duten garrantziaren arabera.

2017ko apirilean kaleraturiko zerrendaren bosgarren berrikuspenaren arabera, garrantzi kritikoko antimikrobianoen artean honako hauek dira lehentasun gorenekoak: kinolonak, hirugarren belaunaldiko edo geroagoko zefalosporinak, makrolidoak eta zetolidoak, glikopeptidoak eta polimixinak (kolistina ere esaten zaie). Antibiotiko horiek ezinbestekoak dira gizakietako infekzio multierresistenteei aurre egiteko, beste tratamendurik ez dagoen kasuetan.

[Giza medikuntzarako garrantzi kritikoa duten antimikrobianoen zerrenda, OMErena, 5. berrikuspena](#)

---

## **Simaur kutsatuaren bidezko infekzioak**

### **17/11/06**

Herbehereetako Osasun Publikoaren eta Ingurumenaren Institutu Nazionalak (RIVM) egindako literatur azterketa batek erakusten duenez, simaurraren infekzio-arriskuei buruz ez da ia edo batere ikerketarik egin. Aurkikuntza nagusietako bat izan zen ikertutako bakterio patogenoak sarritan simaurrean egoten direla eta uraren eta haizearen bidez barreia daitezkeela. RIVMren arabera, gehiago ikertu behar da simaurrak gaixotasun baten kargan zenbateraino eragiten duen ikusteko.

Herbehereetan, jendea abeletxeetatik oso gertu bizi da. RIVMk abeltzaintzak giza osasunean dituen askotariko eraginei buruzko ikerketak egiten ditu. Azken txosten horretan, zehazki, txerrien eta behi-aziendaren simaurrean egon ohi diren bakterio patogenoen kopuruari buruzko zientzia-literatura aztertu du (izan ere, Herbehereetako simaur gehiena animalia horietatik dator).

#### **Patogenoen transmisioa uraren eta haizearen bidez**

Ikertzaileek aztertu zuten, alde batetik, patogeno horiek zenbateraino ibiltzen diren uretan eta haizean, eta, bestetik, patogeno horiek zer-nolako arriskuak ekar diezazkioketen giza osasunari. Azterlan esploratorio horren ardatza *E. coli* bakterioaren aldaera patogenikoa eta metizilinarekiko erresistentea den *Staphylococcus aureus* bakterioa (MRSA) izan ziren; izan ere, bakterio horiek ondo irauten dute uretan eta haizean, hurrenez hurren. Era berean, bakterio horiek nola jokatzen duten eta simaurretik gizakiengana nola hedatzen diren jakitea ere baliagarria izan daiteke, beste patogeno batzuek nola jokatzen duten eta nola hedatzen diren jakiteko.

Literaturaren berrikuspen sistematiko horri esker, beste pauso bat eman da simaurrean dauden eta

gaixotasunak eragiten dituzte bakterioen kopurua identifikatzeko, batetik, eta simaurreko patogenoak ingurumenaren bidez (uretatik eta haizetik) zenbateraino heda daitezkeen zehazteko, bestetik.

### *Simaurrak osasunean eragin ditzakeen arriskuei buruzko ikerketa gutxi*

Ondorio nagusia izan da ez dela ia edo batere ikerketarik egin simaurretik datozen eta uraren eta haizearen bidez transmititzen diren patogenoek giza osasunean eragin ditzaketen arriskuei buruz. Horrenbestez, gaur-gaurkoz ezin da zehaztu simaurrak zenbateraino eragiten duen gaixotasunen kargan (kasu honetan, Herbehereetan).

Alabaina, azterturiko uretako eta haizeko patogenoak modu erregularrean aurkitu ziren simaurrean. Ikertu ziren *E. coli* eta MRSA bakterioetan oinarrituta, badirudi infekzio-arrisku txikiagoa sortzen duela haizeko esposizioak, azaleko ureko esposizioak baino. Kasurako, simaurra konpostaren, hartxiduraren edo arazketa biologikoaren bidez tratatuz gero, patogeno gutxiago sortuko lirateke.

### [Simaurraren infekzio-arriskuari buruzko RIVMren berrikuspena](#)

---

## **Hegazti-gripea European zein egoeratan dagoen aztertu dute 17/10/31**

EFSAk, Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolerako Europako Zentroak (ECDC), hegazti-gripeari buruzko EBko erreferentziazko laborategiek eta hegazti-gripearen eraginpean dauden estatu kideetako agintariak txosten bat argitaratu dute hegazti-gripea EBn eta mundu osoan nola dagoen azaltzeko, eta hiru hilean behin eguneratu eta kaleratuko dute.

Txostenean, EBn 2016tik 2017ra izandako "azken" agerraldiak zehaztu dituzte. Bildutako datuen arabera, **H5N8 anduiak eragindako patogenotasun handiko hegazti-gripea (IAAP)** Europako 29 herrialdetara zabaldu zen, eta **EBn inoiz erregistraturiko epidemia handiena izan zen**, hegaztietako agerraldien kopurua, hedatze geografikoa eta hildako basoko hegaztien kopurua kontuan hartuta.

Lehenengo agerraldiek aldi batez iraun zuten hegaztiekin lotutako sektore guztietan, baina ondoren gehiago hedatu ziren uretako hegaztien etxeko espezieen artean.

Hegazti-gripearen eraginpean egon diren EBko estatu kide guztien ahaleginari esker, eskortako hegaztien, hegazti gatibuen eta basoko hegaztien kasuen deskripzio epidemiologikoa egin ahal izan da, eta estatu kide bakoitzean aplikaturiko neurriei buruzko informazioa eskuratu da.

Bestalde, txostenaren egileek azpimarratu dute datu gehiago lortu behar direla eskortako hegaztien populazioaren egiturari buruz, datuak eta arrisku-faktoreak errazago aztertu ahal izateko. Era berean, proposatu dute kontrol-jarduerekin lotutako definizioak guztiek ulertzeko moduan azaltzea eta aplikatzea, eta EBko estatu kideen bidez horiei buruzko informazioa ematea.

Gainera, txostenean azaltzen dutenez, nahiz eta agerraldiek iraun bitartean gizaki ugari egon ziren eskortako hegazti kutsatuen eraginpean, ez da identifikatu gripea gizakiengana transmititu den kasurik.

Beste kontinenteetako agerraldiei dagokienez, hegazti-gripearen egoera monitorizatu ondoren ikusi da arriskua dagoela Asiako IAAP A (H5N6) birusa distantzia luzera hedatzeko mendebaldeko Europako negu-tokietarantz, aurreko urteetan IAAP (H5N8) eta IAAP (H5N1) birusekin gertatu zen moduan. Gainera, Afrikan bizkor ari da eboluzionatzen IAAP (H5N8) eta (H5N1) birusek sortutako egoera.

Halaber, txostenean ondorioztatzen denez, EBn ez da jakinarazi (H5N1), (H5N6), (H7N9) eta (H9N2) subtipoek gizakietan eragindako kasurik. Birusok gizakiei transmititu zaizkieneko kasuak eremu jakin batzuetan baino ez dira jakinarazi; nagusiki, Asian eta Egipton, basoko hegaztiekin eta/edo eskortako hegaztien populazioekin interakzio sakona egon den lekuetan.

[Hegazti-gripearen txostena: 2016ko urria - 2017ko abuztua](#)

### ***Hegazti-gripearen sartzeko arriskuaren eta EBko zaintza-ikuspegiaren berrikuspena***

Bestalde, EFSAko adituen talde batek eredu matematiko bat garatu du, eta erakutsi du EBko basoko hegazti "nahiko" handien populazioak kutsatzen direnean areagotu eta heda daitekeela birusa.

Iraganean, ziur asko basoko hegazti migratzaileen bitartez sartuko zen EBn patogenotasun handiko hegazti-gripearen birusa.

Adituek diotenez, patogenotasun gutxiko hegazti-gripearen (IABP) birusak IAAParen birusaren pareko gehieneko pebalentzia mailak izan ditzake basoko hegaztien populazioetan. Hala ere, kalkulatu zuten hegazti-ustiatzearen arrisku txikiagoa dutela IABParen eraginez kutsatzeko IAAParen eraginez kutsatzeko baino.

## [Europako herrietan abere-ongizate etiketatzea 17/10/30](#)

**Alemaniak, Danimarkak eta Holandak** bere haragiak identifikatzen dituzte abere-ongizate gradua erakusten duen elikadura-etiketatzearekin.

Europako herri guztiak daude ongizatearen gaineko erkidego-araudia betetzera behartuta. Baina herri batzuk harago doaz eta **etiketatze espezifikoa garatuz ari dira**.

**Holandak** estrategia hau 2007an hasi zuen eta zentzu honetan garatuena da. Etiketatzeari "**Beter Leven**" izena ematen dio, "Bizitza Hobe" esan nahi duena. Etiketan 1 eta 3 izar agertzen dira, abere-ongizate graduaren arabera. Sistema hau **txerrietan, oilaskotan, oilo erruleengan, haragi- eta esne-behietan**.

**Danimarkan** Ingurumeneko eta Elikadurako Ministerio daniarrak etiketatzea garatu du eta 2017 urte honetako maiatzean abiarazi du, oraingoz **txerrikiak** erabiliko da soilik, baina geroago beste abere espezie batzuetara hedatuko da. Etiketan "**BedreDyrevelfaerd**" hitz daniarra agertzen da eta haren ondoan bat, bi edo hiru bihotz, baldintza espezifikokoak betetzeko graduaren arabera koloratuta.

**Alemanian**, etiketatze-sistema koadroan sartzen da "**Tierwohl 2018-2020**" ekimenaren barruan, 2015ean hasi zuen eta helburua etiketatzea 2018tik aurrera sartzea da. Lehen etapa batean txerrikiak garatuko litzateke, beste espezie batzuekin jarraituz asmoz. Ongizate-etiketak kontuan hartuko ditu beste batzuen artean, ukuluak edo animalien garraioaren iraupena.

[Abere-ongizateko europako araudia](#) - MAPAMA

---

## [Animalien garraioan ongizatea bermatzeko gidak 17/09/28](#)

Europako Batzordeak animalien garraioan ongizatea bermatzeko gidak kaleratu ditu (oraingoz, ingelesez bakarrik), honako espezie hauentzat:

- [Behiak](#)
- [Ardiak](#)
- [Txerriak](#)
- [Zaldiak](#)

- [Hegaztiak](#)

Europako Batzordearen Osasunerako eta **Elikagai Segurtasunerako Zuzendaritza Nagusiak (DG SANTE)** abiatu duen proiektu pilotu baten harira sortu eta argitaratu dira gidak, eta EBko 10 estatu kidek esku hartu dute prozesuan.

Europan eta beste herrialde batzuetan, egunero-egunero milaka animalia garraiatzen dira egoera desberdinetan. Ekoizpenerako **animalien garraioa bateratzeko eta hobetzeko tresna praktikoa** izateko helburuarekin, Europako 16 organismok osaturiko partzuergo batek proiektu pilotu hau abiatu du, DG SANTEk finantzatuta, hala abeltzaintzat nola garraiolariantzat pentsatua.

- [PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA](#)

### ***LABURPEN-FITXAK (gaztelaniaz)***

Gidekin batera, gomendio praktikoen **17 informazio-orri** atera dituzte, animalien garraioarekin lotutako funtsezko alderdiak azaltzeko: zamalanak, elikadura eta tenperatura-baldintzak, besteak beste:

- [Garraiolariaren erregistroak](#)
- [Ardien garraio luzeak](#)
- [Oiloak harrapatu aurrekoak](#)
- [Nola eman zaldiei edaten eta jaten](#)
- [Txekorren garraioa](#)

Informazio gehiago:

[Proiektuaren web orrialdea](#) - EB

---

## **BEEn kasuak pentsuak erabat debekatu ostean jaiotako animalietan 17/07/20**

2005etik 2015era bitartean, EBko 73.000.000 behi ingururi probak egin zizkieten behien entzefalopatia espongiformea (BEE) zeukaten aztertzeke; behi horietatik, debekuaren ostean jaiotako 60 animaliak emaitza positiboa izan zuten BEE klasikoaren kasuan. BEEn kasuan emaitza positiboa izan zuten animalien kopurua 1.259ra areagotzen da, debekuaren aurretik jaiotako abereak kontuan hartzen badira.

Bestalde, BEEn kasu klasikoak nabarmen gutxiago dira EBn urteek aurrera egin ahala: 2005ean 554 kasu jakinarazi ziren, eta 2015ean, berriz, bi besterik ez (biak debekuaren ostean jaiotakoak ziren).

Garbi dago Europak laurogeiko krisialdiaren ondoren BEEri eman dion erantzunari esker izugarri

murriztu dela gaixotasunaren prebalentzia behietan. Hala ere, oraindik ere kasu bakan batzuk erregistratzen dira EBn; hori dela eta, Europako Batzordeak kasuon jatorria ikertzeko eskatu zion EFSari.

EBn BEE kontrolatzeko oinarrizko neurria ganaduaren elikaduran animalia-proteinak debekatzea izan zen. Izan ere, BEE pentsu kutsatuen bitartez transmiti dakieke behiei, batez ere bizitzako lehen urtean.

BEE klasikoaren hirurogei kasu jakinarazi dira EBren debekua 2001ean ezarri ondoren jaiotako behiekin lotuta. Animalia horietako bat ere ez zen elikakatean sartu. Nabarmentzekoa da BEE klasikoa gizakiei transmiti dakiekeen BEE mota dela. Batzordeak EFSari eskatu zion zehaztu zezala ea kasu horiek pentsu kutsatuek eragin zituzten edo bat-batean sortu ziren, hau da, bistako kausarik gabe.

EFSako adituek ondorioztatu zuten pentsu kutsatuak direla infekzio-iturri probableena. Horren arrazoia da BEE eragiten duen agente infekziosoa urte askoan aktibo egoteko gai dela. Litekeena da behiek pentsu kutsatuak jan izana, BEEren agente infekziosoa presente zegoelako janaria gordetzean edo manipulatzean. Bestalde, baliteke pentsu kutsatuen osagaiak EBtik kanpoko herrialdeetatik inportatu izana, eta horrek ere eragin litzake BEE kasuak.

Adituek ezin izan zituzten beste kausa batzuk bazter utzi, kasuak banan-banan ikertzea oso zaila delako. Izan ere, alde batetik, gaixotasuna luzaroan inkubatzen da, eta, bestetik, jarraipen-ikerketan egitean, abeletxeetan ez zegoen informazio zehatz nahikorik, eta horrek zaildu egin zuen ikerketa.

[Informazio gehiago](#)

---

## **Espanian animalietan mikrobioen aurkako produktuak erabiltzeari buruzko Europako ikuskaritza 17/07/20**

Animalietan mikrobioen aurkako produktuak zentzuz erabiltzeari buruzko ikerlan hau 2016ko urriaren 20tik 28ra egin zen, Espainian, Osasunaren eta Elikadura Segurtasunaren Zuzendaritza Orokorrak estatu kideetan egiten dituen ikerlanen artean. Ikerlan honen helburua zen, alde batetik, albaitaritza-medikamenduen erabilerarekin lotuta mikrobioen aurkako produktuekiko erresistentzia dela-eta sortzen diren arazoei aurre egiteko neurriak praktikoki ezartzeari buruzko informazioa biltzea eta, bestetik, estatu kide batzuentzat kontu horri aurre egiteko lagungarri izan daitezkeen jarduera onen adibideak identifikatzea.

2014an Espainia izan zen albaitaritzan mikrobioen aurkako produktu gehien erabili zuen herrialdea, Albaitaritza Erabilerarako Mikrobioen Aurkako Produktuen Kontsumoa Zaintzeko Europako Proiektuari datuak aurkeztu zizkioten herrialdeen artean, eta, Medikamenduen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren arabera, salmentak areagotu egin ziren 2015ean. Horrez gain, Espainia da giza medikuntzan mikrobioen aurkako produktu gehien erabiltzen duten herrialdeetako



bat ere.

Estrategia nazional bat ezarri da mikrobioen aurkako produktuekiko erresistentziaren kontra 2014tik 2018ra arteko aldirako, "Osasun bakarra" kontzeptua oinarritzat hartuta. Estrategiak sei helburu ditu, eta helburuetako bakoitzak giza zein albaitaritza arloko ekintzak ditu. Helburuak kualitatiboak dira batez ere, eta borondatezko ekimenen mende daude; izan ere, Espainian ez dago erabilera zuhurreko printzipioak ezartzera behartzeko oinarri juridikorik. Orain arte eginiko lanek honako helburu hauek izan dituzte, besteak beste: antibiotikoen erabileraren jarraipena eta zaintza indartzea, abere-ustategietako osasun-egoera ulertzea (bereziki txerrien sektoreko biosegurtasunetik hasita) eta funtzionarioak, albaitariak eta abeltzaintzaren sektorea mikrobioen aurkako produktuekiko erresistentziari lotutako arazoengatik inguruan sentsibilizatzea.

Txostenean, oro har, ondorioztatzen da goiz dela oraindik mikrobioen aurkako produktuekiko erresistentziaren aurkako ekintza planaren eraginkortasuna hautemateko baina badaudela zantzuak erakusten dutenak nabarmen murriztu daitekeela Espainian mikrobioen aurkako produktuen erabilera, produktibitatean eta kostuetan eragin negatiborik izan gabe. Zantzu horiek Espainian kolistinaren erabilera murrizteko egin den borondatezko egitasmo batetik eta abeltzainen, albaitarien eta ekoizle taldeen ahalegin indibidualetatik eratorri dira.

[Informazio gehiago](#)

---

## **EBko abeltzaintza iraunkorraren aldeko bide-orria - EU40**

EU40k, Europako Parlamentuko kideen sareak, bide-orri bat osatu du Europar Batasunean abeltzaintza iraunkorra sustatzeko. **Dokumentu horren xedea da EBn abeltzaintza-sektore iraunkorra izaten lagun dezaketen ekintzak zehaztea, berrikuntza, teknologia eta zientzia oinarri duten konponbideak erabiliz.** Gainera, bat dator EU40 taldearen filosofiarekin, hau da, EBn abeltzaintza iraunkorragoa izateko xedearekin.

### **ERRONKAK**

Gaur egungo erronkarik handienetako bat elikagaiak modu iraunkorragoan ekoitzi ahal izatea da. Munduko biztanleria handitzen ari da, eta animalia-jatorriko proteinen kontsumoa goraka doa; aldi berean, klima-aldaketa geldiarazi beharra dago. Testuinguru horretan, Europak abeltzaintza-sektorearen iraunkortasuna hobetu behar du.

### **ZER DA ABELTZAINZA IRAUNKORRA?**

**Abeltzaintza iraunkorraren bitartez, kalitate oneko produktu seguruak modu eraginkorrean ekoitzi nahi dira, alde batetik ingurumena eta bestetik nekazarien, haien langileen eta tokiko komunitateen gizarte- eta ekonomia-baldintzak babesteko eta hobetzeko. Horrez gain, animalia-espezie guztien osasuna eta ongizatea ere bermatu beharko ditu abeltzaintza iraunkorrak.**

Kontzeptu horrekin bat, abeltzaintza ikuspegi holistiko eta interseksional batetik landu behar da, eta hiru zutabe hauen gainean eraiki beharko da: ingurumenaren babesa, gizarte-ardura eta ekonomia-bideragarritasuna.

Agiri horretan, EBn abeltzaintza iraunkorra lortzeko zenbait jarduketa gako zehaztu dira kudeatzaile politikoei begira. Besteak beste, honako hauek azpimarra daitezke:

### **Ingurumenaren babesa**

- Abeltzaintza iraunkorrak bioekonomia zirkularrean duen eragina indartzea.
- Animalien osasungintzan I+b sustatzeko eta abeltzainek kontzientziario handiagoa lortzeko testuinguru politiko egokia sustatzea.
- Ingurumenaren kalitatea aintzat hartzea berotegi-efektua eragiten duten gasak (GHG) kalkulatzeko.

### **Gizarte-ardura**

- Iraunkortasunak antimikrobianoekiko erresistentziaren aurkako borrokan duen garrantzia azpimarratzea.
- Animalien ongizatea neurtzea, emaitzak oinarri hartuta.
- Europar Batasuna elikagai gutxiago xahutzeko egiten ari den borrokan abeltzaintza iraunkorrak daukan zeregina sendotzea.
- Abeltzaintza-sektorearen eta kontsumitzaileen arteko arrakala murriztea, kontzientziarioa areagotzeko.

### **Ekonomia-bideragarritasuna**

- Abeltzainei laguntza ematea merkatuan lehiakorrak izaten jarrai dezaten.
- Tokiko produktuen bereizketa sustatzea, eta iraunkortasuna balio erantsi gisa aurkeztea.
- Abeltzaintzaren ikuspegi eta itxaropenei buruzko ikerketa sustatzea, kontsumitzaileen bilakaera-lehentasunei behar bezala erantzun ahal izateko.

[EU-40: Roadmap for Sustainable EU Livestock](#)

---

## **Hegazti-gripea Frantzian 17/07/07**

**Ekainaren 30ean** patogenotasun handiko H5N8 hegazti-gripearen (**H5N8 PHHG**) kasu bat **baieztatu** zen Frantzian; zehazki, Brillon hirian izan zen, herrialdeko Nord departamenduan.

Frantziako azken agerraldia martxoaren 17an jakinarazi zen, eta hau da gaur egungo kasuen kopurua:

- **485 agerraldi abeltegi komertzial eta ez-komertzialetan.**
- **55 kasu hegazti basatietan.**

Fokuaren jatorri izan diren instalazioak **Tournai-en** (Belgika) **dauden beste instalazio batzuetatik 15 km-ra** daude; bertan hegazti ez-komertzialak dituzte eta uste da fokua **merkatu batean erositako uso eta oilaskoek** eragina izan daitekeela.

Ekain hasieratik hegazti-gripearen kasu gehiago ere baieztatu dira Belgikan, nagusiki apaingarri gisa hazten diren hegaztietan.

Birusa zabal dadila saihesteko, osasun-agintaritzek zenbait neurri hartu dituzte kaltetutako zonaldean, eta 3 eta 10 km-ko babes- eta zaintza-eremuak ezarri dituzte fokuaren inguruan. Zonalde horietan hegaztien jabeek, profesionalak izan edo ez, dagozkien biosegurtasun-neurriak aplikatzea espero da.

- [Hegazti-gripearen egoera Espainian eta European](#) - Elikaren berria (2017/04/19)
- [Frantziako hegazti-gripeari buruzko informazio eguneratua](#) - Frantziako Nekazaritza eta Elikadura Ministerioa (alim`agri).